

ANTOINE D'ABBADIE 1897-1997 AGIRIAK: LIBURUKIAREN AURKEZPENA

Hendaia/Hendaye, 1998-XII-15

Liburuki honek Biltzarreko lau ekitaldiren berri eskaintzen digu. Eusko Ikaskuntzak eta Euskaltzaindiak Anton Abbadiaren mendeurrenean, 1997ko irailaren 24tik 26ra antolaturiko Biltzarrean aurkeztu txostenekin paratua duzue.

Ekitaldiotan, besteak beste, hamar euskaltzain osok parte hartu zuten.

Argitalpen honetan, guztira 47 txosten azaltzen zaizkigu, alegia, 24 euskaraz, 12 gaztelaniaz eta 11 frantsesez. Aipatu Nazioarteko Biltzarrean Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak, Deustukoak, Pabekoak, Baionakoak, Pariskoak eta Bartzelonakoak izan ziren, besteak beste, partaide.

ANTOINE D'ABBADIE 1897-1997
Congrès International Hendaye-Sare 1997

Eusko Ikaskuntza. Ezohiko Kongresua
Euskaltzaindia. XIV. Biltzarra
1998.LVI, 708 orld.: ir.; 24 cm.
ISBN: 84-89516-71-5 (*)

Apain, ongi eta arin —ez dena gertatzen maiz Biltzarretako aktekin edo solasekin—, datorkigu liburu mardul hau, Eusko Ikaskuntzak eta Euskaltzaindiak Anton Abbadiaren mendeurrenean, 1997ko irailaren 24tik 26ra antolatu biltzarrean aurkeztu txostenekin paratua.

Lau ekitaldi nagusi izan zituen kongresuak, hasierako eta bukaerako zeremonietako hiltzaldiez at, hauetan kultur eta politika agintariek parte hartu zutelarik bai Hendaian bai eta Saran.

Konparatzen badugu Anton Abbadia hil zen urtean Donibane Lohizunen, *Société d'Ethnographie Nationale et d'Art Populaire* erakundeak antolatu biltzarrean gertatutakoarekin, alegia, bertako testu printzipalena *La Tradition au Pays Basque* (1899) liburuan bilduak, denak frantsesez zirela —Casals, Becas, Otaño eta Diharassarri koplarien euskal bertso sarituak salbu—, pentsa genezake Anton Abbadia beraren gazteluko hilobitik iratzarriko balitz bozkarioz beteko litzatekeela, ikusiz nola ehun urteren buruan haren oroimena ez den itzali, 1851ean, ereiten hasi zen hazia fruitu ederrik ematen ari dela, berak hasitako obrak baduela jarraitzailerik, ez zela alfer-lana izan, eta Euskal Herriak oraino bizirik diruela.

Ce livre volumineux recueillant les exposés présentés au cours des congrès organisés par Eusko Ikaskuntza et Euskaltzaindia à l'occasion du centenaire d'Antoine d'Abbadie du 24 au 26 septembre 1997 nous arrive élégant, agile et correct, ce qui n'est pas toujours le cas des interventions au cours des Congrès.

Le congrès se composa de quatre sessions principales, sans compter les conférences correspondantes aux cérémonies d'inauguration (Hendaye) et de clôture (Sare), au cours desquelles intervinrent des autorités culturelles et politiques. Ce livre recueille 47 exposés de professeurs de différentes nationalités et universités. Vingt-quatre d'entre elles furent présentées en basque, 12 en espagnol et 11 en français.

Si l'on compare tout cela avec ce qui arriva au cours du congrès organisé par la Société d'Ethnographie Nationale et d'Art Populaire l'année de la mort d'Antoine d'Abbadie, c'est-à-dire avec les textes principaux recueillis dans le livre *La Tradition au Pays Basque* (1899), tous en français —à l'exception des vers basques primés de Casals, Becas, Otaño et Diharassarri—, nous pouvons penser que si Antoine d'Abbadie se réveillait dans sa tombe il serait heureux de voir qu'au centenaire de sa mort sa mémoire reste et que le fruit qu'il avait commencé à semer, aux alentours de 1851, donne de bons fruits, que l'oeuvre qu'il commença continue, que ce ne fut pas un vain travail et qu'Euskal Herria reste vivante.

* * *

Bestalde eskerrak azaldu nahi dizkiegu jarraiko erakunde-entitateei eskainitako babesarengatik bai Biltzarra egiteko eta liburukia argitaratzeko orduan ere, alegia:

Akitania-Euskadi-Nafarroa Lankidetzeta Fundazioa
Eusko Jaurlaritzak. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila,

Conseil Général des Pyrénées Atlantiques,
Région Aquitaine,

Hendaiaiko Udala,
Sarako Udala,

Euskal Herriko Unibertsitatea,
Upresa 5478. Bordeaux III / CNR

(*) Liburu honen berri gehiago Interneteko helbide honetan ere izan dezakezue:
<http://suseOO.su.ehu.es/denda>.
Pour plus d'information sur ce livre, on peut visiter l'adresse suivante d'Internet:
<http://suseOO.su.ehu.es/denda>.